

**EDUKIAK:**

- 1. Bolumenaren ausnarketa:** Pertsonai batetan oinarrituta txontxongilo baten sorkuntzaren azterketa. Buztinarekin lehenengo proiektuak.
- 2. Forma launak eta geometria:** oinarritzko trazadurak. Triangelu, lauki eta poligonoak. Izar poligonalak. Obalo, oboidea eta kiribila.terketa.
- 3. Objektuen mundua:** bista diedrikoa, piezaren bistak ikustea, gorputzak sistema axonometrikoan eta konikoaren azterketa.
- 4. Ingurunea behatzen:** simetria, hondoa eta silueta, marrazketa artistikoa, ehundurak, irudiaren positiboa ta negatiboa...kontzeptuetaz arduratu zenbait proiektu desberdin sortzeko.
- 5. Kolorea:** kolorearen ezaugarriak birpasatu eta zenbait proiektu desberdin koloreztatzeko zenbait teknika desberdinak erabiliz.

**MATERIALEA:** Plastikozko koaderno bat orri gardenekin lanak gordetzeko, arkatzak (2B, 2H eta 2HB), borragoma, eskuaira, kartaboia, konpasa, erregela, errotulagailuak, tenperak, pintzelak, zurezko margoak, tinta beltzeko errotulagailua marrazketa teknikorako (V7), margotzeko mantala edo kamiseta zaharra eta trapua.

*Oharra:* Ikasturtean zehar gai hauen ordena alda daiteke eta denbora aldetik arazorik balitz gairen bat amaitu gabe gera daiteke.

Mugikorra ezin da klasean erabili eta ez da begibistan egon behar. Ariketaren batetan kontsulta moduan erabiltzea derrigorrezkoa izatekotan irakasleari baimena eskatu behar zaio beti

**KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:**

Ikasleari lanak ikasgelan egiteko eskatuko zaio (denbora ezean etxean amaitu beharko ditu) eta lan guztiak irakasleari entregatu beharko dizkio.

Irakasleak hauek ebaluatuko ditu eta lan bakoitzeko kalifikazio bat izango du. Ikasgaia gainditzeko **lan guztiak** entregatu izana derrigorrezkoa delarik.

Hiruhila bakoitzean egin dituen lanen kalifikazioen batezbestekoa egingo da eta ebaluazio irizpideak jarraituz ikasleari hiruhileko kalifikazioa emango zaio.

Ikasturteko kalifikazioa , beraz, eginiko lan eta kontrol guztien batezbestekoa izango da.

Ikasleak hiruhilen bat gaindituko ez balu, berreskurapen lana egin dezake hurrengo hiruhilaren lehen hamabostaldiko tartean

Hiruhilen bat berreskuratu ezean, ekainean berreskurapen froga praktiko orokorrean atal hori berreskuratu ahal izateko aukera izango du, baldin eta hiruhileko bakarra badu. Bi edo hiru hiruhileko izango balitu gainditugabe, ikasturteko gaitegi osoa sartzen deneko azterketa praktiko orokorrera aurkeztu beharko litzateke arloko ekaineko ebaluaketan kalifikatua izateko.

Ikasle batek ekaineko ebaluaketa orokorra gainditu ezean, ekaineko ezohizko froga praktiko orokorrera aurkezteko eskubidea du. Froga hau mintegiak prestatuko du eta ikasturteko gaitegi osoaren azterketa izango da. Hau mintegiak ebaluatuko du.